

## FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Gure jarduera egin ahal izateko, ondorengo baliabideak behar ditugu:

### ● BALIABIDE FISIKOAK:



Industria-pabiloia bat alokatuko dugu bertan produktuaren hasierako muntaketa gauzatzeko. Industria-pabiloian materialak gordeko ditugu eta mahai batzuk egongo dira, muntaia prestatzeko tresneria beharrezkoarekin bertan produktua muntatzeko. Industria-pabiloia , 608m<sup>2</sup>-koa da eta hilabetean 2.500€ ordainduko dugu. Aduna herrian kokatuta dago. Muntaia prestatzeko beharrezko tresneria erosiko dugu, hau da, eskaerarekin ikusten dugun tabletak, argiak,

egurra egina, manikiak, tresna kutxak eta behar dugun material guztia gure armairuaren zeregina funtzionatzeko. Azkenik furgoneta batzuk erosiko ditugu armairuak etxetara eramateko, hasiera batean 2 furgoneta.

### ● BALIABIDE INTELEKTUALAK:

Web orri bat dugu produktua saltzeko eta bertan honi buruzko informazioa eskuratzeko. Bezeroak erraz erakartzeko ezagutza, jendea produktua erosteko buruan sartzeko, produktua erakargarria bilakatzeko ezagutza. Armairu adimendua muntaia egiteko ezagutza profesioanala eta trebetasuna behar dugu.



### ● GIZA BALIABIDEAK:

Hasteko, lau garez denek ez dugu izango lan berdina, Yeray eta Oier enpresaren antolakuntza eramango dute, hau da, erosi behar diren materialen prezioetaz arduratuko dira eta iristen diren aginduekin kontrolatuko dute zenbat gauza erosi behar ditugun. Eneko eta Kevin armairua etxetara eramatearen eta muntatzearen lana hartuko dute, biok furgoneta batean joango dira eta armairuko zatiak eramango dituzte etxetara hor "eraikuntza" egiteko. Publizitatea eta webaren lana egiteko Lankidego eta Publicis Worldwide kontratatuko dugu. Baita ere hasieran armairuaren programazioa kontratatuko dugu Azilen enpresa. Bakarrik behin programatu beharko da.





- **FINANTZA BALIABIDEAK:**

Dirua guk jarriko dugu, sozietate mugatu bat egingo dugunez ekarpen minimoa 3000€-koa da, baina 103.366€-ko hasierako inbertsioa jarriko dugu. Orduan 4 garenez bakoitza 2500€ jarriko ditugu. Hasierako kapitala, enpresarentzako materialak erosteko eta industria-pabiloiaren errenta ordaintzeko erabiliko ditugu. Azkenik, armairu adiemendua produktu berri bat denez eta ideia lapurtua ez izateko merkaturatzeko patenteak egin behar dira, produktua erregistratu egin beharko da.